

Migel Angel Saenz

GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEKO TEKNIKARI-ENOLOGOA

«Tolare-sagardotegia patentea nahi dugu egileak diren sagardotegiak izendatzeko»

■ Zergatik erregistratu nahi duzue Tolare-sagardotegia patentea?

Asko okertu da txotx garaia, jendeak garrantzi gehiago ematen baitio jateari sagardoari baino. Sagardotegien modaren ondorioz, sagardotegi izenak indar handia du, eta sagardo botila batzuk saltzen edo upel gutxi batzuk dituen edozein jate-txek hartzen du sagardotegi izena.

Tolare-sagardotegia izenarekin ongi bereiztu nahi ditugu sagardoa egiten duten lekuak eta sagardoa saldu bakarrik egiten dutenak.


■ Sagardotegi izenak jendea erakartzen al du?

Sagardotegi izenarekin jatetxe eta taberna ugari egite dute publizitatea, herrian bertan daudela eta autoa hartu beharrik ez dela esanez. Moda aprobetxatu dute.

■ Zein dira, bi hitzetan, zuek patentatu nahi duzuen izena izango duten sagardotegien ezaugarriak.

Gure sagardotegietan sagarra ekarri, prentsatu eta irakiten uzten da, sagardoa lortu ahal izateko. Hala, egurrezko upelean edukitzen dute sagardoa botilaratu

■ ■ ■ Sagardoa etxean egin eta saltzen duten hainbat sagardotegik euren lana ongi bereiztea lortu nahi dute sagardoa saldu besterik egiten ez duten jatetxeetatik. ■ ■ ■ 'Tolare-sagardotegia' izena erregistratzeko prozedura jarri du abian Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek



EDURNE KOCH

Saenzen iritziz, botilan dago sagardoaren etorkizuna.

aurretik, edaria ongi ondu dadin. Ondoren, sagardoa botiletan sartu eta saldu egiten dute. Beraz, prozesu guztia egiten duten sagardotegien izena izango da, litro asko edo gutxi ekoizten dituzten ez digu axola.

■ Nola doa patentea erregistratzeko prozedura?

Oraindik Tolare-sagardotegia izena patentatu nahian gabiltza, eta izenarekin batera Gipuzkoako Sagardogile Elkartaren irudia joango da. Izan ere, Tolare-sagardotegia izena izen generikoa omen da, eta, ondorioz, ez ziguten patentea eman nahi. Horregatik erabaki dugu izena TS siglekin eta elkartaren irudiarekin egitea. Gure ustez, horrela izendatuta nahikoa da, baina eztabaidan dago. Ea otsailerako zerbait erabakitzen duten.

■ Eta nork erabili ahal izango du izen hori?

Elkartean biltzen garenok, hots, sagardoa egin eta saltzen dugun sagardotegiok. Elkartean egon ez baina sagardoaren prozedura jarraitzen dutenek ere erabili ahal izango dute izen hori. Baina ez beste guztiek; hala eginez gero, euren kontra joango gara.

Lortu nahi dugu aurreran-

tzean sagardogileen izenarekin batera izen hori agertzea, jendeak jakin dezan non zer dagoen. Gaur egun edonork jar dezake izen hori, oraindik ez baitago erregistratuta.

■ Ez al zaizue interesatzen zuen sagardoa saltzen duten lekuak egotea?

Sagardotegi izena erabiltzen duten jatetxe horiek egiten dutena da sagardoa upel antzeko batzuetan saldu eta sagardoaren irudia zikindu. Izan ere, sagardoa ez dute botilan saltzen, eta, ondorioz, sagardoa urte hasieratik maiatza bitartean bakarrik edaten dela dirudi. Gainera, sagardo onena botilaratua dagoena da, ez upelekoa.

Gu ez gaude jatetxe horien kontra, besteak beste, gure sagardoa saltzen dutelako. Baina guk nahi duguna da bi gauzak ongi bereiztea.

■ Eta zer betekizun du txotx garaiak?

Sagardoaren etorkizuna botilan dago, txotx garaiak sagardoa nola egiten den azaltzeko izan behar luke. Sagardoa ezagutu eta gustatuko zaion jendea behar dugu.

Ainhua Oiartzabal
DONOSTIA



ZAPIAIN

Astigarragako Sagardoa